

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure produktua gauzatzeko eta aurrera eramateko, hainbat baliabide beharko ditugu. Baliabide hauek hainbat multzotan sailka ditzazkegu.

Alde batetik baliabide fisikoak daude, kasu honetan, gure produktua gauzatzeko eta ekoizteko lokal bat alokatzea iruditzen zaigu izango dela egokiena. Lokal hau donostian kokatuta dago, Riberasen hain zuzen ere. Alokairua 700 eurokoa da hilabetero eta 66m²koa da.



Hau da lokala:

<https://www.idealista.com/inmueble/92006526/>

Bertan bi gela bereiztuko ditugu: gela batean etorkia ekoizteko tailerra egongo da, eta bertan mahi bat egongo da, lan egiteko eta etorkia ekoizteko tresnak egongo dira ere. Beste gelan bulego txiki bat egongo da, bulego honetan mahi bat egongo da eta mahi horretan ordenagailu bat egongo da etorkia aurreratzen doan heinean informazioa biltzeko eta bertatik hau saldu ahal izateko.

Gainera, internet bidez erosteko aukera egongo denez, ordenagailuarentzat Wi-Fi router bat beharko dugu hau gauzatzeko.

Beste alde batetik, **baliabide intelektualak** daude. Guk beste enpresen laguntza beharko dugu, adibidez aterkian egongo den



txiparen ezagutza edukitzeko eta hau lortzeko, MediaTek enpresarekin harremanetan jarriko gara. Honek, txip-ari buruzko informazioa eskeintzen digunez eta haek guri saltzeko aukera eman digutenez, haiekin harremanetan jartzea egokiena izango dela pentsatzen dugu.

Giza baliabideen inguruan, Etorriak dituen salmenten kontuak eramateko Eneko egongo da, berak baitu informatika ezagutza ona, eta badakizkielako salmenten kontuak eramaten.

Aterki-ontzia ekoizteko, tailerran, Sara egongo da. Sarak baliabideak ekoizteko eta sortzeko ikasi du eta horreagatik berak ekoiztea da egokiena.

Azkenik, Naroak eta Lidek aterkiari eguraldia iragartzen duen txip-a instalatuko diote, beraiek ikasi baitute informatika eta haiek badakitelako horrelako gauzak instalatzen.

Finantza baliabideei dagokionez, Etorria enpresa sortu ahal izateko, 3.500 euroko mailegu bat eskatuko dugu Kutxan, instalakuntza, aterkia, txip-a, lehenengo soldatak etab. ordaintzeko. Irabaziak lortzen goazen heinean, banketxeko mailegu hori ordaintzen joango gara. Gainera, taldeko bakoitzak 500 euro jarriko ditu eta guztira 2000 euro bilduko ditugu taldekideen artean.